

UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEEN LAN-POLTSA

1.- Deialdiaren xedea:

Udalak antolatzen dituen udaleku irekietarako begiraleak kontratatzeko lan-poltsa osatzea lehiaketa-oposaketa ireki bidez.

2.- Izangaien baldintzak:

Onartua izateko eta lehiaketan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Lan-kontratua sinatu behar dutenerako 18 urteak beteta izatea.
- b) DBH, Lanbide Heziketako erdi mailako titulua edo baliokidea izatea.
- c) Gaixotasunik ez edukitzea, ezta akats fisiko nahiz psikikorik, postuan bete behar diren funtzioak betetzea galaraziko lukeenik. Beharrezkoa izanez gero mediku-txostena eskatuko da.
- d) Europako Batasuneko edozein estatutako edota hitzartutako herrialde bateko nazionalitatea edukitzea, abenduaren 29ko 55/1999 Legearen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- e) Euskara jakitea: Mintzatzeko trebetasuna izatea. Beharrezkoa ikusiz gero, azterketa egingo zaio izangaiari trebetasun hau frogatzeko.
- f) Adingabeekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria.
- g) Diziplinazko espedientea dela medio, Estatuko, Autonomia Erkidegoko nahiz udal erakunde publikoen menpeko lanetik banandua ez izana, ezta ere herri eginkizunetan aritzeko.
- h) Izendatua suertatuko balitz, abenduaren 26ko 53/1984 Legeak bateraezintzat jotako lanetan ez aritzea lanpostuaz jabetzeko egunean.

Eskatzen diren baldintza hauek izena emateko epea amaitzen denerako beteta eduki behar dira, a) baldintza izan ezik.

3.- Eskabideak eta dokumentazioa

Non hartu eta non entregatu: Udaleko hhz bulegoan (Herritarren Harrera Zerbitzuan).

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:00-19:00.

Zer aurkeztu:

- Eskabide-orria beteta
- Nortasun agiriaren kopia
- Euskararen ezagutza egiaztatzeko agiria (EGA, ikasketak euskaraz egin izana,...)
- Adingabeekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria.
- Lehiaketan baloratzen diren merituetako agirien fotokopiak. Originalak ez dira jasoko

Epea: 2017ko apirilak 24, arratsaldeko 19:00ak arte.

4.- Epaimahai kalifikatzailea:

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuta egongo da:

- Presidentea
- Bi bokal
- Idazkaria

Epaimahaia ezin daiteke eratu ez jardun, kideen, titular nahiz ordezeko, erdiak baino gehiago bertaratzen ez baldin badira. Nolanahi ere, presidenteak eta idazkariak bertan egon beharko dute. Halaber, eta behar izanez gero, Udalak aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango du.

5.- Hautaketa

Lehiaketa-oposaketa bidez arautuko da hautaketa:

→ Lehiaketa Fasea

Honako meritua hauek baloratuko dira:

Aisialdiko titulazioa

- Eusko Jaurlaritzak homologatutako Aisialdiko Begirale agiria **5 puntu**
- Beste autonomia elkarteek homologatutako Aisialdiko Begirale agiria **3 puntu**

Bestelako titulazioak

- Unibertsitate mailako nahiz Goi mailako Heziketa Zikloa amaituta izatea **4 puntu**
Honako titulazio hauek baloratuko dira eta bakarrik puntuatuko da:
Magisteritza, IVEF-SHEE, Gizarte Hezkuntza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte eta Kultur animazioa, Heziketa Fisikoko Goi Mailako Zikloa, Gizarte Integrazioa eta Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa.

- EGaren pareko edo goragoko titulazioa izatea: **1 puntu**

Lan Esperientzia: Dagokion erakundeak sinatutako ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

- Udalekuetan (itxi nahiz ireki) zuzendari edo begirale bezala aritu izana (0,5 puntu egonaldiko) (gehienez) **4 puntu**

Ikastaroak: Dagokion erakundeak sinatutako ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

- Aisialdiko jarduerekin lotura duten ikastaroak
- Sorosletza ikastaroak

(Ikastaroa kontuan hartu ahal izateko gutxieneko ordu kopurua: 10)
(0,5 puntu ikastaroko)
(gehienez)

4 puntu

→ **Oposaketa Fasea**

Oposaketa faseak froga bakarra izango du, derrigorrezkoa eta bazkertzailea:

1.- Talde dinamika burutzea.

Ariketa honekin hautagaia lanpostuaren perfilari egokitzen ote den neurtu nahi da.

Azken kalifikazioa lehiaketaldian eta oposizioaldian lortutako emaitzen batuketa izango da. Berdinketa egonez gero, ordena irizpide hauen arabera jokatu da:

- 1.- Oposizioaldian puntuaziorik handiena.
- 2.- Zozketaz

6.- Onartuen zerrenda eta izendapen proposamena:

Begiraleen zerrenda, puntuazioaren arabera sailkatuta, alkateari igorriko dio Epaimahaiak, udaleku irekietako begiraleen lan-poltsari onarpena emateko.

Alkateak hasierako onarpena emango dio zerrendari eta udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian jarriko dira, eta ikusgai izango dira **10 eguneko epean**, nahi duenak alegazioak egiteko. Epe horretan alegaziorik izan ezean, erabakia behin-betiko onartutzat emango da.

7.- Gorabeherak:

Epaimahaia ahalmen-duta dago sortzen diren zalantzak argitzeko eta lehiaketa hau ondo antolatu eta ezin hobeki eraman dadin behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den orori dagokionez.

8.- Inpugnazioak:

Oinarri hauen onespén-erabakiek administrazio bideari amaiera ematen diote eta, beren aurka, dagozkion errekursoak aurkeztu ahal izango dira.

Interesatuak deialdiaren, oinarrien eta horren ondorioz nahiz Epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortutako administrazio-agintzen kontra egin dezakete 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, xedatutako moduetan eta kasuetan.

9.- Begiraleen betebeharrak (nahitaezkoak)

- Udalekuen prestaketa saioetan parte hartzea (Programazioa prestatzeko asteburuan eta udalekuan zehar egiten diren bileretan).

Betebehar hauek betetzeko arazoren bat izanez gero, **idatziz** adierazi behar zaio Udalari, **aurrez**. Programazioa prestaketa saioen kasuan, astebete lehenago gutxienez.

Aurrez IDATZIZ adierazi ez eta saio hauetara joaten ez dena ez da kontratatuko.

- Kontratua osorik betetzea

Laneko hutsegiteen kasuan, kontratua sinatu baino hiru egun lehenago, gutxienez, adierazi behar zaio Udalari **behar bezala justifikatuta**, eta Udalak erabakiko du onartu ala ez.